

Irati Mogollón

SOZIOLOGOA



IKERKETATIK PRAKTIKARA

“Soziologia ikastea hautatu nuen militantzia dela-eta, gizartea hobeto eza gutzeko. Hala ere, doktoretza tesia izan da ikasketarik handiena. Bizitza sostengatzeko estrategia kolektiboek buruzkoa izan zen nire tesia. Ikerketa praktikara eramateko beharra asebetetzeko sortu genuen Zaintzen Arkitekturak taldea Ana Fernándezek eta biok, Europako herrialdeetako zaharkitze kolektiboaren esperientzietatik abiatuta. Zazpi urteren ondoren, gaiak gurean pisua hartu izana oso polita izan da”.

“Hautatua, adostua eta politikoki landua ez bada autoritarioa da zaintza”

Zaharren ahalduntze tailerrak eta etxebizitza kolektiborako prozesuak taldean lantzen ditu Irati Mogollónek (Lezo, 1991), Zaintzen Arkitekturak proiektuaren baitan. Ikerketa prozesua izan da horren aitzindaria; Ana Fernández urbanista feministarekin argitaratu du *Arquitecturas del cuidado. Hacia un envejecimiento activista* (Zaintzaren arkitekturak. Zahartze aktibistarantz) (Icaria, 2019).

 LEIRE REGADAS  HODEI TORRES

Zahar etheen eredua birplanteatzeko ideia indartu da azken urtean. Zein da zure irakurketa?

Zaintzaren gabeziak mahai gainean jarri dira, zoritxarrez, miseria handi batetik; baina zahartzaroaz hausnartzeko aukera edo abagunea izan da eta hori zoragarria da. Uste dut erredundantzia erori dela, hala ere; eztabaidak gehiago direla publiko-pribatua, ratioak... Beste gai asko landu barik gertatzen dira bizitzaren jasangarritasunari edo zahartzaroari dagokionez. Esaterako, non daude eskubide soziokulturalak egungo zahar etxeetan?

Egoitzen ereduak lotura handia du zahartzaroaz dugun iruditeriarekin.

Adinkeriaren ikuspegia oraindik presente dago gure gizartean. Zahartzaroa estereotipatu da; horregatik hitz egiten dugu zaharren ahalduntze feministaz edo zahartze aktibistaz, txipa guztiz aldatu behar delako. Kontzientzia propioa duen egitura bate-tik, gure burujabetza eta kontzien-

tziario politiko baterantz jo behar dugu, norberaren buruaren kokapenetik abiatuta. Oraindik ez da iritsi zahartzea harrotasunez biziko dugun puntua.

Zein gai gehiago gelditzen dira landu gabe, zure ustez?

Zaintza lanak gero eta indibidualizatuago daudela, gure aiton-amonak baliabide bat direnez kontziliazioa beren esku uzten jarraitzen dugu. Beste gai bat da zahar etheen digitalizazio prozesua, teknologiarekiko harremana; zaintza krisia sozialki, pertsonekin konpontzen da. Teknologia lagungarria da, noski, baina ezin dugu bere horretan aterabide edo alternatiba bilakatu. Oso sinplea den gauza bat zenbat konplikatzeko dugun...

Adinekoak beraien nahiak kontuan hartu gabe zainduak izan behar direnaren ideia dago?

Zaintza desmitifikatu behar da. Ez baldin bada hautatua, adostua eta politikoki landua, zaintza autoritarioa da. Hogeita lau orduz senideak lagunduta edukitzeko filosofia horre-



"Egunerokotasunarekin zerikusia duten zaintzak integratu ahal izateko estrategia herritarrak behar ditugu".

tan non da intimitaterako eskubidea? Edo planteamendu lagunkoiak, proposamen infantilizataileak direnak maiz... Zahar-tzean ez ditugu laguntxoak behar, esku-bide duinak eta erabakitze eskubidea baizik; ez ditzagun birproduzitu horrela-ko patroiak.

Eredu berri bat eraikitze aldera, zein da jarraitu beharreko estrategia?

Beste azpiegitura batzuk sortu behar dira zahar etxeak husteko. Egunerokotasunarekin zerikusia duten zaintzak integratu ahal izateko estrategia herritarrak behar ditugu. Harremanak eta zurrumuru sozialak dira askotan pertsonen behar duten gauza bakarra mentalki zein emozionalki aktibo eta entzunak sentitzeko, eta horiek ez dizkizu emango zaintzaile batek, harreman sanitarioa baita berarekin duzuna, ez da izango zure laguna. Zaindua sentitzeko berdinen arteko sarea beharrezkoa da, azpiegitura sozio-sanitarioek atentzioa bermatzen dute, ez zaintza.

Garrantzitsua da norberak erabakitzea zein erataro bizi nahi duen zahartzarora.

Pertsona bakoitzak bere ardura kolek-

tiboa du; guk, adibidez, zahar ahaldu-ntze prozesuak 55 urtetik aurrera hasten ditugu eta jendeak atsekabeak hartzen ditu. Nik beti esaten diet: "Etxeko lanak ondo egin nahi dituzu ala biharko egunean zure etorkizunaz beste norbaitek erabakitzea nahiago duzu?". Hori baita egoerarik ohikoena...

Era orokor batean landu daiteke prebentzio hori?

Badaude estrategia horiek garatzen hasi diren udalerrri batzuk: Lezo, Beasain... zahar ahaldu-ntze estrategiak egiten ari dira apurka-apurka gurekin batera. Prozesu horretan eztabaidatzen da zer-nola-ko ekipamendu komunitarioak edo udal ekipamenduak behar diren, eta beste auzi batzuei buruz ere hausnartzen da: sexualitateaz, burujabetza ekonomikoaz, biloben zaintzari marra gorriak nola ezarri...

Etxebizitza komunitarioak dira zahar etxeen eta egungo bizi ereduaren alternatiba bat, baina zein puntura arte zain dezakegu elkar kolektiboki?

Komunitarioaz hitz egiten denean, jendeak espektatiba desberdinak kokatzen ditu taldearen baitan, eta gero atseka-

beak sortzen dira. Hori ekiditeko erabaki behar da zer zainduko den kolektiboki eta zer ez, zer den komunitarioa eta zer ez... negoziaketa nahitaezkoa da. Espazio kolektiboek eduki behar dute adosturiko bizitza kolektiboa eta horretarako zintzoa eta gardena izan behar zara. Kontsentsuetara iritsi, landu, eta jarrera ez epaikorra eta irekiagoa izan behar da.

Prozesu luzea da beraz, erabakiz eta adostasunez jositakoa.

Aniztasunean bizitzea izan behar da jomuga, baina ez da batere erraza. Bizitza komunitarioa ezinbestean lotuta egon behar da denboran eta bizi zikloan zahar jasangarria den partaidetza batekin, minimo eta maximo batzuk ezarrita. Gako handienetako bat da ez sortzea puxika kolektibo ereduak; oso azkar puztu eta era berean husten direnak.

Epe ertainera begira, baikorra zara?

Oso garai estrategikoak datozela uste dut, ongizate estatua aldatzen ari delako; zaintzaren eta gizartearen birplanteamenduari dagokionez, familia eredu ere aldatzen ari da... Askok dago egiteko herri mugimendutik. ●